

ITXAROPEN ARGI-PRINTZAK

OTSALAR'EK

EUZKADI BARRUTIK BIALDUA

Inguruan ura dutalarik or-emen
Soilki natxeok nerekautan amilburu baten.
Bean, labar (1) amiltsuen oinpean,
Olatu zoroak orrua dariola burrukan.
Itsaz-ertz egalean duelarik beren abaro,
Ur ta ortzien jaun ta jabe, naro,
Ozkarbia urratuz, kaioak beren zoruna.
Eta uraz-andik erri ta gizonak diek azkatasuna.

Geldiro bañan ausarti, joan ta joan,
Itsaz azalean ontzitxo bat dantzan.
Ura lasaiki ildaskatzen (2) uan ontzi: naramak irekin
Bide urdiñen gañetik, lur ontatik urrin,
Nire barne gogaketak azkatasuna ezagutu dedin.
Egoak ba-nizkik; aruntz joan al baneza...
Bañan, oldozmenaren egoetan zergaitik ez ega?
Eta ames gozo baten murgil libre^a naizela?

Ai! ez ba-litz aberriagaitik, nire aberri maitea.
Biotz-biotzean daromatan aberri maitagarria.
Berriz ere ik esnatuko nauk eta ilgo dut nire azke ametsa.
Lurrai lotua nauk, aur errukigarri,
Besteren azke izanean dutalarik bekaizkeri.
Jauna!, indatuko al duzu euskaldun erria,
Jarraitu dezan beti Zure sinismen bidea
Eta ezagutu dezagun noizpait besteak bezin libre^a.

Ikusmen gogalpentsu t'ameskor,
Zabal aña alai arkitzen ia ut itxasor,
Ire ur-irakin apartsuak dituk goruntz jaso;
Nik, osertz (3) urrutietan nire begiok so.
Ire bezo urdin oiekin erri guziak gerrikatzen dituk
Beti anaikor izateko eran ire lokarri urdiñak alkartuko al gaituk,
Zorionez kanta dezagun: "eman da zabalzazu",
Bira erri guziak ik bai dituk laztandu.

.....
Itsaz bazterra!, zorioneko itsaz bazterroil,
Ire kresal aizeakin azke usaia dakarzkik beti.
Ik piztutzen diok nire barneko gau illun oni,
Urrutiko itxaropen lausoan, izar-dizdiratsuen argi.

OTSALAR

(1) Labar — cantilado. (2) Idaskatu — surcar (3) Osertz — horizonte.